



**IKASTETXE PUBLIKOEN EMAN BEHARREKO  
DOKUMENTAZIO AKADEMIKOARI BURUZKO  
JARRAIBIDEAK, DOKUMENTAZIO HORREK  
ONDORIOAK IZAN DITZAN ATZERRIAN**

Ikastetxeei irizpide hauek eman nahi dizkiegu, legeztatze-ondorioetarako sinadura aitortzeko ematen den unibertsitatez kanpoko dokumentazio akademikoak izan behar dituen ezaugarrien inguruan:

**JARRAIBIDEAK:**

- 1.- Historia Akademikoan, bukatutako etapetan baino ez da egingo sinadurak egiaztatzea.
- 2.- Hezkuntza-etapa amaituta ez badago, ikastetxeak Ziurtagiri Akademiko ofizial bat egingo du, eta dokumentu horri sinadurak egiaztatzea egingo dio Hezkuntza Administrazioak.
- 3.- Ikastetxeak sinadura digitalarekin egiten badu Historia Akademikoa, "Historia Akademiko digitalaren Eranskina, atzerrian ondorioak izan ditzan" dokumentua ere gehitu beharko du. Dokumentu hori sinadura digitalaren kasurako egin da, eta Espediente Akademikoen aplikazio informatikoan lor daiteke.
- 4.- Nola Historia Akademiko digitalaren Eranskinak hala Ziurtagiri Akademikoak zuzendariaren eta idazkariaren izen-abizenak izan behar dituzte, bai eta horien eskuzko sinadurak eta ikastetxearen zigilua ere.
- 5.- Ikastetxe pribatuetako derrigorrezko irakaskuntzaren osteko kasuan, atxikita dagoen ikastetxe publikoak eman eta sinatu behar du dokumentazioa.
- 6.- Ez zaie sinadurak egiaztatzerik egingo amaitu gabeko Historia Akademikoei eta sinadura digitala baino ez duten Historia Akademikoei.

Prozesuari buruzko informazio gehiago:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dif9/eu\\_5494/acreditacion\\_extranjero\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dif9/eu_5494/acreditacion_extranjero_e.html)

**INSTRUCCIONES SOBRE LA DOCUMENTACIÓN  
ACADÉMICA A EMITIR POR LOS CENTROS PÚBLICOS A  
FIN DE QUE SURTA EFECTOS EN EL EXTRANJERO**

Con el fin de facilitar a los centros educativos criterios acerca de las características que deberá reunir la documentación académica no universitaria expedida para el Reconocimiento de firmas a efectos de Legalización, se dictan las siguientes

**INSTRUCCIONES**

- 1.- El Historial Académico sólo será objeto de reconocimiento de firmas en el caso de etapas finalizadas.
- 2.- Cuando la etapa educativa no esté finalizada, el centro expedirá una Certificación Académica oficial, que será el documento objeto de reconocimiento de firmas por parte de la Administración educativa.
- 3.- En el caso de que el centro expida un Historial Académico con firma digital, deberá adjuntar al mismo el "Anexo al Historial Académico digital a fin de que surta efectos en el extranjero" que se ha elaborado a tal efecto y que está disponible en la aplicación informática de Expedientes Académicos.
- 4.- Tanto en el Anexo al Historial Académico digital como en la Certificación Académica deberán constar el nombre y los apellidos del director o directora y del secretario o secretaria, así como sus firmas manuscritas y el sello del centro.
- 5.- En el caso de enseñanzas post-obligatorias realizadas en centros privados, la documentación deberá ser expedida y firmada por el centro público correspondiente al que está adscrito.
- 6.- No serán objeto de reconocimiento de firmas los Historiales Académicos de etapas no finalizadas ni los Historiales Académicos con firma únicamente digital.

Para más información acerca del proceso:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif9/es\\_5494/acreditacion\\_extranjero\\_c.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif9/es_5494/acreditacion_extranjero_c.html)

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 1ean

  
**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
 DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Begoña Garamendi Ibarra  
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA